| **21. Enpresa txiki eta ertainetako enpresari eta zuzendaritza-kideen sentsibilizazio eta gaikuntzarako lantegiak eta mintegiak egitea (20. ekimenaren barruan).** | Egiten ari da | 20. lerroaren bidez gauzatua | 95002 96200 2276 242102 |
| **22. Lankidetza-hitzarmena beste autonomia-erkidego batzuekin baliabideak, tresnak eta prestakuntza-edukiak prest egoteko.** | Gauzatua | Lankidetza denez, ez du aurrekonturik | |
| **23. Gaitasun digitalen autoebaluazioko, edukietako eta egiaztapeneko plataforma bat garatzea.** | Egiten ari da | 20.925,74 € | G30001 G3100 6090 921C00<br>G30001 G3100 6091 469100 |
| **24. Gaitasun digitaletako zentroen edo telezentroen sare bat sortzea.** | *Proiektu pilotua Liburutegi Zerbitzuarekin* | | |
| **25. Nafarroako Gobernuan garatutako ekintzak eta ekimenak ezagutzera emateko Komunikazio Plana diseinatzea.** | Egiten ari da | 53.000 € | G30001 G3100 2262 921C00 |
| **26. Planaren kontrola eta jarraipena egiteko batzorde bat sortzea.** | Egiten ari da | 42.350 € | G30001 G3100 6091 469100 |
| **27. Planaren jardueren eta planak 2030erako Nafarroako Estrategia Digitalean zehaztutako helburuetan duen eraginaren jarraipen operatiboa egiteko tresna bat garatzea.** | 2021ean gauzatua | | |
| **28. Herritarren gaitasun digitalak ebaluatzeko tresna bat garatzea (23. ekimenaren barruan).** | Egiten ari da | 23. lerroaren bidez gauzatua | G30001 G3100 6090 921C00<br>G30001 G3100 6091 469100 |

## 10-22/PES-00250. Galdera, Hezkuntza Departamentuak antolatutako ibilbideetako eskola garraioari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuak antolatutako ibilbideetako eskola garraioari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 10-22-PES-00250 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Informazio-eskaeraren xede diren kontuei dagokienez:

– 102/2017 Foru Aginduaren esparruan, zenbat ikasle daude Batxilergoan, Oinarrizko Lanbide Heziketan eta Lanbide Heziketako erdi mailako graduetan, eskola-garraioaren eskubidea bermatua eduki ez eta aukera izan dutenak, azken lau ikasturteetan, Hezkuntza Departamentuak antolatutako ibilbideetan postu hutsak baliatzeko?

Lehenik eta behin aipatu behar da aurreko urteetan ez dela egin eskola-garraioko ibilbide antolatuen kontrol zehatzik, batez ere aipatu 102/2017 Foru Aginduan esaten zelako postu hutsak ibilbidearen helmuga-ikastetxe bakoitzak kudeatzen dituela, eta lehen ez zegoen erabilitako postu hutsen kopurua zenbatzeko eta erregistratzeko sistema komunik; hori dela-eta, ez ditugu eskura azken lau ikasturteetako datu horiek.

Legealdi honetan Eskola Garraioaren kudeaketari buruzko datuak modernizatu eta digitalizatzearen aldeko apustua egin da, GESTRANS tresna berria informatikoki garatu da, eta horrek ikastetxeei ahalbidetuko die datuak garraiatutako ikaslearen EDUCAren bidez sartzea: eskubidea duena (ibilbidean edota banakako laguntza) eta postu huts batean dagoena; automatikoki ibilbide-zenbaki bat eta geraleku bat esleituko zaio, ikaslearen bizilekuaren arabera.

2022-2023ko ikasturte honetan abian jartzen ari gara, eta aurten eskola-garraioaren kudeaketarako datu digitalak eta automatizatuak eskura izanen ditugu lehenbizikoz; beraz, postu hutsak zenbatuko ditugu.

Ikasturte honetarako eskola-garraiorako jarraibideetan ezarritako epeen arabera –"Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren irailaren 15eko 408/2022 Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira eskola-garraioaren antolaketa eta funtzionamendua 2022-2023ko ikasturterako"–, ikasleek ikastetxeetan eskatzeko aukera izan dute irailaren 23ra arte, eta ikastetxeek esleitzen dituzte postu hutsak eskola-ibilbide bakoitzean, 35/2022 FA berriaren 17. artikuluan ("Hezkuntza Departamentuak bakarrik antolatutako eskola-garraioan toki hutsa erabiltzeko eskubidearen hurrenkera") ezarritako irizpideen arabera.

Ikastetxeek joan den irailaren 30era arteko epea zuten ibilbide bakoitzean hutsik dauden tokiak esleitzeko, eta, ondoren, datuak EDUCA/GESTRANSen grabatzeko zenbatuak eta kudeatuak izan daitezen; baina tokien esleipen hori atzeratuta doa, hain zuzen, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako erdi mailako heziketa zikloetako etapetan eskubidea duten ikasle-kopuruak gora egin duen ibilbide horietan; hortaz, gaur egun (2022ko urriaren 7a) oraindik ez ditugu 2022-2023ko ikasturterako esleitutako toki hutsen datuak.

– Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspenaren eta eskura dituen datuen arabera, zenbat ikasle daude Batxilergoan, Oinarrizko Lanbide Heziketan eta Lanbide Heziketako erdi mailako graduetan, eskubide osoz baliatuko dituztenak Hezkuntza Departamentuak antolatutako ibilbideak, 35/2022 Foru Aginduan oinarriturik?

Honako hau da ondotik zehazten diren prestakuntza-etapetan eskubide osoz plaza bat izanen duten ikasle onuradunen kopurua 2022-2023 ikasturterako, ikasturte horren sartu baita indarrean eta aplikatuko baitira Nafarroako Foru Komunitatean eskola-garraioaren zerbitzuaren antolaketa eta haren funtzionamendua, eta eskola-jantokirako banakako laguntzak arautzen dituen Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 11ko 35/2022 FORU AGINDUAn ezarritako irizpide berriak:

- Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak: 742
- Batxilergoko ikasleak: 2.068

• Lanbide Heziketako erdi mailako graduetako ikasleak: 1.220

– Zenbat ikasle daude Batxilergoan eta Lanbide Heziketako erdi mailako graduetan, Departamentuak antolatutako ibilbiderik ez edukitzeagatik banakako laguntzak eskuratuko dituztenak?

Banakako laguntzak oraindik ere izapidetzefasean daude; ikasturte honetarako eskolagarraiorako jarraibideetan ezarritako egutegiaren arabera —2022-2023ko ikasturterako, eskolagarraioaren antolaketa eta funtzionamendua onesten dituen Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren irailaren 15eko 408/2022 Ebazpenaren bidez onetsi dira jarraibideok—, ikasleek irailaren 30era arte eskatzen ahal zituzten laguntza horiek haien ikastetxeetan, eta orain ikastetxeak ikasleak bizi diren herrietan erroldatuta daudela egiaztatzen ari dira eta eskaera horiei dagozkien datuak EDUCAn grabatzen, izapidetu eta oneste aldera hiru hilez behin ordaintzen diren (abenduan, martxoan eta ekainean) laguntza horiek.

Hori horrela, oraindik ez ditugu eskura datu guztiak, baina gaur arte (2022ko urriaren 7a) egindako EDUCAren datuen lehen hustuketa batean, honako datu hauek ditugu:

• Batxilergoko banakako dirulaguntzen eskaerak: 449

• Lanbide Heziketako Erdi Mailako banakako dirulaguntzen eskaerak: 613

Orain horien Km-egiaztapenak behar dira, linea erregularrak dituzten ala ez, herri bakoitzean 1, 2, 3 ikasle edo gehiago dauden, eta abar. Eta eman behar zaien diru-kopurua zehazten da, aipatutako garraiorako jarraibideetan ezarritako eta onartutako kopuruen arabera, zeinak honako hauek baitira 2022-2023ko ikasturterako:

| **BANAKAKO LAGUNTZA** | 10 Km-ra bitarte. | 10 Km baino gehiago eta 20 Km-ra bitarte. | 20 Km baino gehiago eta 30 Km-ra bitarte. | 30 Km baino gehiago. |
|---|---|---|---|---|
| Ikasle bat | 554,94 € | 777,79 € | 1.092,27 € | 1.528,27 € |
| Bi ikasle | 431,63 € | 603,37 € | 835,44 € | 1.163,19 € |
| Hiru ikasle edo gehiago | 322,23 € | 445,82 € | 611,83 € | 853,22 € |

Adierazitako kopuruak ikasle eta ikasturte bakoitzeko dira.

Heldu den abendurako datu guztiak zehatzago izanen ditugu eskura: emandako banakako laguntza guztien kopurua eta 2022-2023ko ikasturteari dagokion zenbateko osoa.

Iruñean, 2021eko urriaren 10ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## 10-22/PES-00251. Galdera, Nafarroako Gobernuaren tutoretzapeko hiru adingabe ustez prostituitu eta abusatzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren tutoretzapeko hiru adingabe ustez prostituitu eta abusatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera bat egin du Nafarroako Gobernuaren tutoretzapeko hiru neska adingabe ustez prostituitu eta abusatzeari buruz (10-22/PES-00251). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

3. Instrukzio-epaitegiak auto bat eman du, zeinaren bidez erabakitzen baita debeku dela adingabeak nor diren jakitea ahalbidetzen duen ezein datu zabaltzea. Autoa honi atxikita doa. Horregatik, entitate publiko honek ezin du inolako dokumenturik laga edo igorri, kontuan hartuta, halaber, babes-espedienteak irekita daudela eta egitateak instruitu egin direla, baina ez direla epaituak izan. Parlamentariak eskatzen dituen dokumentu eta txostenetan informazio oso delikatua ageri da, adingabeak eta haien familiak nor diren jakiteko aukera ematen baitu.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko irailaren 30ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

## 10-22/PES-00252. Galdera, Arraiz-Orkingo zeharbideari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak Arraiz-Orkingo zeharbideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko irailaren 23ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak galdera egin du (10-22/PES-00252) Arraitz-Orkingo zeharbideari buruz, eta hori delaeta hauxe jakin nahi du:

Departamentuak begi-bistako arrisku hori gainditzeko zer urrats egiteko asmoa du?

Orain arte zer urrats egin ditu horretarako?

Obrak egiteko zer epe aurreikusten du?

Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunaren erantzuna: Errepideen IV. Plan Zuzendariak Arraitz-Orkinen saihesbide bat eraikitzea jasotzen du. Baldin eta aurrekontuan horretarako diru erabilgarria badago eginen da saihesbidea. Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak jada badu jarduketa horren trazaduraren proiektua.

Azterlan eta Proiektuen Zerbitzuak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari horri buruz galdetu dio, eta departamentuak ondo-

rioztatu du proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta behar duela.

Halaber, Lurralde Kohesiorako Departamentuak txosten bat egin dezala eskatu dio Ebroko Konfederazio Hidrografikoari, trazadurak Zaldazaingo ubidea egitura baten bidez zeharkatzen du. Une honetan, Departamentua Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostena jasotzeko zain dago.

Lanak egiteko epeei dagokienez, nabarmendu behar da eraikuntza-proiektua eduki arte ezin izanen dela informazio zehatz hori eskuratu.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 1ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## 10-22/PES-00253. Galdera, gogoz kontrako bakardadearen aurkako foru-estrategia prestatzeari buruzko mozioaren betetze-mailari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gogoz kontrako bakardadearen aurkako foru-estrategia prestatzeari buruzko mozioaren betetze-mailari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 23ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak galdera egin du gogoz kontrako bakardadearen aurkako foru-estrategia prestatzeari buruzko mozioaren betetze-mailari buruz (10-22/PES-00253). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Gaur egun, Nafarroako Gobernuko gainerako departamentuekin lanean ari gara Zahartze Aktibo eta Osasungarrirako Nafarroako 2017-2022 Estrategiaren ezarpenarekin jarraitzeko, COVID-19aren pandemiak hura eten baitzuen. Estrategia 10 arlotan egituratuta dago, eta horietako askok haien jarduera-ildoen bidez azpimarratu egiten dute bakardadearen prebentzioa. Esparru horretan betetzen ari gara parlamentariak aipatzen duen mozioa.

Gainera, Gizarte-, osasun- eta komunitate-zerbitzuak izeneko 4. arloan jarduera-ildo bat berariaz zehaztuta dator “bakardade-egoerak hautemateko eta laguntza-sarerik ez duten –edo ia ez duten– pertsonendako zerbitzuak diseinatzeko”.

2022an zehar, Toki Entitateen eta Gizarte Entitateen zenbait programa finantzatu dira, gogoz kontrako bakardadearen prebentzioan laguntzen dutenak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

# 10-22/PES-00254. Galdera, Palacio de Arozteguia SL eta Hotel Palacio Arozteguia S.L merkataritza-enpresek eta Aroztegia Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Palacio de Arozteguia SL eta Hotel Palacio Arozteguia S.L merkataritza-enpresek eta Aroztegia Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 23ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Aráiz Flamarique jaunak 2022ko irailaren 13an PES-00254 galdera egin zuen, Palacio de Arozteguia SL eta Hotel Palacio Arozteguia SL merkataritza-enpresek eta Aroztegia Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa. Hona hemen erantzuna:

1.- Burututa al daude Palacio Arozteguia SL eta Hotel Palacio Arozteguia SL merkataritza-sozietateek eta Aroztegia Jauregiko Konpentsazio Batzordeak abiarazitako ondare-erreklamazioko prozedurak?

Ez, ebazpen-proposamena eta espediente osoa Nafarroako Kontseilura igorri dira, Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legearen 14.1.i) artikuluan aurreikusitako derrigorrezko irizpena jaulki dezan.

2.- Zer datatan amaitzen zen prozedura horiek burutzeko epea? Administrazio-isiltasun bidez ezetsiak izan al dira?

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Idazkari Tekniko Nagusiaren otsailaren 21eko 6/2022 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren ondare-erantzukizuneko prozedura abiatu zen, Palacio de Arozteguia SL eta Hotel Palacio Arozteguia SL eta Aroztegia Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen ekimenez.

Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 91.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, prozedura abiatzen denetik sei hilabetekoa da erreklamazioa ebazteko eta hura jakinarazteko ezarritako gehieneko epea.

Aipatu epean esanbidezko ebazpenik eman ezean, da ebazpena partikularrari kalte-ordaina ematearen aurkakoa dela ulertzen ahalko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Administrazio-isiltasun bidez ezetsiak izan diren kasuetan, behin epemuga pasata administrazioak esanbidezko ebazpena emanen du urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.3 b) artikuluan agertzen den isiltasunaren zentzuari loturik egon gabe.

3.- Eskatu al zaio Nafarroako Kontseiluari ondare-erantzukizuneko erreklamazio horiei buruz nahitaezkoa den irizpena jaulki dezan? Zer egunetan jaulki zuen irizpena? Zer konklusiotara iritsi zen erreklamazio horiek baiesteaz edo ez baiesteaz?

Bai, 2022ko irailaren 9an Nafarroako Kontseiluari derrigorrezko irizpena eman zezan eskatu zitzaion, galderak aipatzen dituen ondare-erantzukizuneko erreklamazioez denaz bezainbatean. 2022ko irailaren 12an, Nafarroako Kontseiluak irizpen-eskaera hartu izanaren agiria igorri zuen.

Oraindik ez du irizpena eman. Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legearen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, oro har, Nafarroako Kontseiluak eskatzen zaizkion irizpenak berrogeita bost egun balioduneko epean eman beharko ditu. Kontseiluak irizpenik ematen ez badu adierazitako epean, izapidea beteta dagoela eta aholkua eskatu zaion gaiari buruz eragozpenik ez dagoela ulertuko da.

4.- Baldin eta espedienteak burututa badaude, nola amaitu? Erreklamatzen den horren guztizko edo aldezko baiespenarekin, ala osoko ezespenarekin, irizteagatik ezen ez zela erreklamaziogileei egozteko moduko kalterik izan, zerbitzu publikoen

–kasu honetan, segurtasunekoen– funtzionamendu normal nahiz anormalaren ondoriozkorik?

Arestiko erantzunean adierazi denez gero, espedienteak ebatzi gabe daude oraindik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 4an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## 10-22/PES-00255. Galdera, Gazteriaren Institutuan eginkizun dauden araugintza-garapenei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gazteriaren Institutuan eginkizun dauden araugintza-garapenei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 23ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00255), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

1.- Zertan dira Nafarroako Gazteriaren Institutuan eginkizun dauden araugintza-garapenak, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko eta Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeko antolakuntzaren eta funtzionamenduaren oinarrizko arauak ezarriko dituen foru-dekretu proiektua dela-eta?

Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko eta Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeko antolakuntzaren eta funtzionamenduaren oinarrizko arauak ezarriko dituen foru-dekretu proiektuaren kasuan, Gobernu Irekiaren Atariaren bidez ekarpenak egiteko epea amaitu baitzen, behin betiko dokumentua prestatu da, eta une honetan aginduzko txostenak jasotzeko zain gaude espedientea bukatzeko eta Nafarroako Kontseiluari igortzeko, ondoren Gobernu Kontseiluak onets dezan.

Ekarpenen prozesuaren emaitza Gobernu Irekiaren web orrian ikus dezakezu, parte-hartzeen txostenean hain zuzen ere.

Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordearen kasuan adierazi behar dizut hori arautzen duen 189/2022 Foru Agindua 2022ko uztailaren 11n onetsi zela eta 156. NAOn argitaratu zela, jende guztiak horren berri izan dezan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## 10-22/PES-00256. Galdera, NA-1110 errepideak Aiegin Iratxeko monasterioaren parean duen bidegurutzean biribilgune bat eraikitzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, NA-1110 errepideak Aiegin Iratxeko monasterioaren parean duen bidegurutzean biribilgune bat eraikitzeari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 23ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 10-22/PES-00256 galdera aurkeztu du. Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunaren erantzuna:

Zer data-aurreikuspen zehatz darabilzue NA-1110 errepideak Aiegin Iratxeko monasterioaren parean duen bidegurutzean biribilgune bat eraikitzeari buruz?

Jarduketa hori Errepideen IV. Plan Zuzendarian dator jasota. Baldin eta aurrekontuan horretarako diru erabilgarria badago eginen da biribilgunea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 1ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## 10-22/PES-00257. Galdera, Volkswagen-en instalazioetako trenbideko sareari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Volkswagen-en instalazioetako trenbideko sareari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-22/PES-00257 galdera aurkeztu du Landabengo eta Arazuri-Orkoiengo industrialdeen artean trenbide-saihesbide bat eraikitzeari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunaren erantzuna: trenbide-begizta desagertuko denez, Nafarroako Gobernuak tokiko trenbide bat mantendu nahiko luke, Landabengo eta Orkoien-Arazuriko industrialdeen artean salgaiak garraiatzeko.

Gogorarazi behar da ezen Nafarroako Foru Komunitatearena dela herrilanen gaineko eskumen osoa, baldin eta Estatuaren interes orokorraren kalifikazio juridikorik ez badute edo Estatuko beste lurralde batzuk ukitzen ez badute, foru erkidegoaren lurraldean osorik egiten diren trenbideak eta lurreko garraioak badira, eta orobat dauka eskumen osoa Nafarroaren jarduera ekonomikoaren eta garapen ekonomikoaren sustapenaren plangintzaren baitakoa bada, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44.1, 44.2 eta 19.1.f) artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Orobat nabarmendu behar da etorkizuneko trenbide hori ez dela sare nagusiaren parte izanen.

Azkenik, 2023ko aurrekontuko partidari dagokionez, 220001 22300 6019 453103 partida baliatuko da –Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiko “Landabengo eta Arazuri-Orkoiengo industrialdeen arteko trenbidea” partida– gastuak finantzatzeko.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950